

## ILUSIOA ETA BEHARRA

Irakurleak eskuartean duen argitalpen hau bi muturreko motibazioaren emaitza izan da. Lehenengoa, ilusioa, emozioen arlokoa izanda ikutezinezkoen arloan kokatuta, neurri eta arrazionaltasun guztitik urrun, eta hala ere, proiektuak bideratzeko primerako errekurso emankorra izaten da, idealizazioak konfiguratu eta talde eta pertsonen artean eratutako harreman sareak indartzeko.

Bigarrena, beharra, fenomeno integral eta etengabeko egokitze eta aldatze prozesu konplexutan murgilduta dagoen lan munduaren analisisian dagoen hutsune teoriko eta disziplina anitzetakoaren egiaztatzearen ondorioz sortutakoa da. Lanaren antolakuntza, gizarte-enpresa inbrikazioa, lan-osasuna, lan-zuzenbideko eta segurtasun sozialeko ordenamenduak elkarrengandik bereizi ezin diren gaiak dira, eta aldi berean, hiritarren arlo intelektualak ez ezik beren eguneroko zereginak ere balditzatzen dituzten aldagarriak dira. Hau guztia XXI. menderako ateetan, iraultza teknologikoa indartuta, eta “mundu mailako herriska” izenez ezagutzen dena ere osatzen ari dela. Anitz dira, zalantzarik gabe, lan munduaren inguruan sortuta eta sortzeko dauden erronkak, eta ikertzaileak, intelektualak, profesionalak, eragile sozialak eta hiritarrak elkartzeko moduko guneak behar dituzte lan harremanei dimentsio berrietatik heltzeko moduan. LAN-HARREMANAKek elkarriketa eta eztabaidagune horietako bat izan nahi du.

Aipatutako erronkei aurre egiteko, LAN-HARREMANAKekook kalitate zientifikoaren benetako bermea den Aholkularitza Kontseiluaren laguntza daukagu. Hala ere, kontseilu hau ez da aldizkaria bera gauzatzerakoan sor daitezkeen akatsen erantzule, inondik ere, eta barkamena eskatu nahi dugu alde aurretik halakorik balego. Bestalde, bihotza den eta bere partaidetza gabe aldizkariaren planteamentu berak zentzurik izango ez zukeenaren lankidetzaren erantzule ere badugu, Erredakzio Aholkularitzaz ari gara, eta bere etengabeko lan arduratsuz. Antzeko zer-bait esan genezake Lan Harremanen Ueri diogun zorra azaltzerakoan ere, egun hezur eta mamia duen lanasmu hura, lehenengo sortu eta gero babestu duelako, eta baita EHUko Bizkaiko Campuseko Errektoreordetzari ere, erakutsitako interesa eta laguntza ekonomikoarengatik. Zerrenda honen barruan, aipatu beharra daude errealitatea eta eztabaida teorikoaren arteko lotura erabiltzeak ekar dezakeen onuran sinestuta hau bezalako bidea sustatzearen alde apostu egin duten

beste bi erakunde ere: *Inguralde* eta *Lan-ekintza*. Guztioi eskerrik beroenak emateko izan bedi paragrafo hau.

Beste maila batean, ez ordea garrantzi txikiagoarekin, bide jaioberriak LHUE osatzen duten Unibertsitate Sailen laguntzari esker sortu da, eta euskal gizarteko beste hainbat erakunde eta eragileei esker: Lan Harremanetarako Kontseilua, sindikatuak, enpresak, Lanbide Elkargoak eta Euskal Administrazio Publikoa.

Lankidetzaren aniztasun hau Lan Harremanen disziplina anizkotasunaren adierazgarri ere bada. Aberasgarria da, zalantzarik gabe, baina aldi berean ukazinezkoa da ikuspegi aniztasunak sortu ohi duen, behar baino gehiagotan, aztergaia zein den ondo ikusteko ezintasuna, eta ondoriozko ikuspegi sakabanaketa. LAN-HARREMANAKek desberdinak diren ikuspegiak barne hartu nahi ditu, horretarako bi estrategia erabilita: eragile sozialen ekarpenei lehentasuna eskainita, eta aldizkariari monografiko izaera emanda.

UPV/EHUko LHUEri diogun atxekimendua dela eta, ezinbestekoa dugu sortu berria den bide hau gizarteari Lan Harremaneko ikasketen eta LHUEko Diplomadunen zerbitzu-ahalmenaren berri emateko erabiltzearena. Gehitutako zerbitzu hau eskaintzeko aukera eta beharra daukagula uste dugu.

Amaitzeko, aurrerantzean ere zure arretarekin kontaktzea gustatuko litzaigukeela esan nahi dizugu, ondo baderitzozu; hala izanez gero, ez zalantzarik izan gurekin harremanetan jartzeko edo ale honetan aurkituko duzun harpidetzarria betetzeko.

JUAN HERNÁNDEZ ZUBIZARRETA  
LAN-HARREMANAKeko zuzendaria